

INGURUMEN KONTUAK. INGURUMEN ZERGEN KONTUA 2017 (A)

## Ingurumen-zergak Euskal AEn %4,7 hazi ziren 2017an eta ia 1.200 milioi euro izan ziren

### *Euskal AEko zerga guztien %7,8 izan zen zifra hori*

Euskal AEko Ingurumen-zergak 1.199 milioi eurokoak izan ziren 2017an, aurreko urtean baino %4,7 gehiago, Eustatek eginiko Ingurumen Zergen Kontuaren arabera.

Ingurumen-zergak horrela definitzen ditu EUROSTATEk: horiek zeinen zerga-oinarria unitate fisiko edo antzekoren bat baita materialen batena zeinek ingurumenean inpaktu kaltegarri, zehaztu eta espezifikoak baitu; SEC2010-Europar Kontu Sisteman zerga gisa identifikatuak behar dira izan.

### Ingurumen zergak ingurumen izaeraren arabera (milaka euro eta %). 2014-2017 (A)

|                                 | 2015             | 2016             | 2017 (A)         | 2016/2015  | 2017(A)/2016 |
|---------------------------------|------------------|------------------|------------------|------------|--------------|
| <b>GUZTIRA</b>                  | <b>1.112.529</b> | <b>1.145.635</b> | <b>1.199.417</b> | <b>3,0</b> | <b>4,7</b>   |
| Energia-zergak                  | 955.663          | 987.302          | 1.033.701        | 3,3        | 4,7          |
| Garraio-zergak                  | 146.820          | 148.787          | 155.425          | 1,3        | 4,5          |
| Kutsadura- eta baliabide-zergak | 10.046           | 9.545            | 10.291           | -5,0       | 7,8          |

(A) aurrerapena

**Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua**

Ingurumen-zergak hiru kategoriatan sailkatzen dira: Energiaren gaineko zergak, Garraio-zergak, Kutsadura- eta baliabide-zergak.

Taldekatze horri kasu eginez, *Energiaren gaineko zergak* dira munta handienekoak eta 2017an 1.034 milioi eurokoak izan ziren, guztiaren %86,2. Talde horren barnean garrantzitsuenak da *Hidrokarburoen zerga berezia*, 891 milioirekin, dagokion taldearen %86,2. Zerga hori %4,7 hazi zen 2016aren aldean, Energiaren gaineko zergen guztizkoan den hazkunde-tasa bera.


Bigarren garrantzian, *Garraio-zergak*, guztiaren %12,9, 2017an 155 milioi euro izan ziren, %4,5 gehiago aurreko urtean baino. Nabarmentzen da trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, 134 milioi euro 2017an, %86,0 zerga-talde horretan.

Azkenik, *Kutsadura- eta baliabide-zergak*, gainerako %0,9a, urte arteko aldakortasun handiagoa dutenak; 2017an %7,8 hazi ziren aurreko urtearen aldean, 10 milioi eurora iritsita.

Ingurumen-zergak %1,62 izan ziren BPGz 2017an, Espainiarako zenbatetsitako %1,83ren azpitik eta 28-EBko %2,40renetik.

Zergen guztizkoan, Ingurumen-zergak 2017an kontabilitate nazionalaren markoaren barnean kontabilizaturiko zerga guztien %7,8 izan ziren. Zerga-motaren arabera, ingurumen-zerga gehien hementxe daude: *Produktuei buruzko zergetan*, *BEZ eta inportazioei buruzkoak aparte*. %52,5 dira, 1.037 milioi eurora iritsita.

**Zergen banaketa Euskal AEn (%). 2017 (a)**




Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

*Beste zerga korrienteen barruan*, ingurumen xededunak guztiaren %42,8 izan ziren 2017an, 134 milioi euro; *Ekoizpenari buruzko gainerakoetan*, %4,5 izan ziren ingurumen xededunak, 28 milioi euro alegia.

*Gainerako zergetan*, azkenik (non biltzen baitira BEZ, inportazioen gainekoak, errentaren gainekoak eta kapitalari buruzkoak), ez dago ingurumen-zergarik.

Baldin hartzen baditugu kontuan diru-sarrera fiskal denak (zergak eta gizarte-kotizazioak), ingurumen-zergak Euskal AEn %5,0 dira, 28-EBren batezbestekoaren azpitik, %6,0koa dena, eta Espainiakoaren azpitik (%5,3), eta apur bat gainetik Frantzia (%4,8), Belgika (%4,7) eta Alemania (%4,5) bezalako herrialdeetakoan aldean, Eurostatek 2017rako argitaraturiko azken datuen arabera.

**Ingurumen zergak % Zerga guztira eta kotizazio sozialak. 2017(A)**



Iturria: Eurostat. Environmental taxes eta Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

Lurraldeetan, Arabako ingurumen-zergak guztien %15,7 izan dira eta aurreko urteaz %8,5 gehitu; Bizkaikoak %51,3 eta %3,8; Gipuzkoakoak %33,0 eta %4,4.

**Ingurumen zergak lurralde histoikoka (milaka euro eta %). 2015-2017 (A)**

|                  | 2015             | 2016             | 2017 (A)         | 2016/2015  | 2017 (A)/2016 |
|------------------|------------------|------------------|------------------|------------|---------------|
| <b>EUSKAL AE</b> | <b>1.112.529</b> | <b>1.145.635</b> | <b>1.199.417</b> | <b>3,0</b> | <b>4,7</b>    |
| ARABA/ÁLAVA      | 175.324          | 173.375          | 188.135          | -1,1       | 8,5           |
| BIZKAIA          | 566.072          | 593.078          | 615.369          | 4,8        | 3,8           |
| GIPUZKOA         | 371.133          | 379.181          | 395.912          | 2,2        | 4,4           |

(A) aurrerapena

Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

**Oharra:** Aurreko 2014-2015 serieko datuak berrikusiak izan dira akort izateko azken datuekin argitaratuak izan direnak administrazio publikoaren kontu ekonomikoetan SEC2010 markoaren barnean.

**Informazio gehiagorako:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tf: 945 01 75 62